

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia Iragarkiak

BIDE AZPIEGITUREN ETA MUGIKORTASUNAREN SAILA

“A-2602 eta A-4624 errepideak Arabako Artziniegatik (Araba) igarotzean egokitu eta urbanizatzeko eraikitze proiektua”-k eragindako ondasun eta eskubideen zerrenda zabaltzea eta dei egitea aurretiatzeko aktak eta/edo okupazio aktak egiteko, eta, bidezkoa bada, baita balio justuarena ere

Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Saileko foru diputatuak, 2020ko urriaren 8an, 555/2020 Foru Agindua onartu du. Hona hemen horren testua:

“Handitzea “A-2602 eta A-4624 errepideak, Artziniegan (Araba) zehar igarotzen diren zatietan, egokitu eta urbanizatzeko eraikitze proiektuak” eragindako ondasun eta eskubideen zerrenda. Kreditu atxikipena.

Diputatuen Kontseiluaren uztailaren 28ko 441/2015 Erabaki bidez, “A-2602 eta A-4624 errepideak, Artziniegan (Araba) zehar igarotzen diren zatietan, egokitu eta urbanizatzeko eraikitze proiektua” egikaritzeko eragindako ondasun eta eskubideen behin betiko zerrenda onetsi zen.

Eusko Jaurlaritzaren irailaren 29ko 182/2015 Dekretuaren bidez, adierazi zen premiazkoa zela proiektu horrek eragindako ondasunak eta eskubideak okupatzea.

Errepide Zerbitzuak txostena eman zuen 2020ko uztailaren 13an, eta honako hau adierazi zuen:

“Diputatuen Kontseiluaren martxoaren 10eko 117/2015 Erabaki bidez, behin betiko onetsi zen “A-2602 eta A-4624 errepideak, Artziniegan (Araba) zehar igarotzen diren zatietan, egokitu eta urbanizatzeko eraikitze proiektua”, eta hasierako onespina eman zitzaion proiektu horrek eragindako ondasun eta eskubideen banakako zerrenda zehatzari eta hura jendaurrean jartzeko izapideari.

Eraginpeko ondasun eta eskubideen zerrenda horretan, 20. finka dago, Artziniegako 8. poligonoko 30. lurzatiari dagokiona, katastro izendapenaren arabera, eta José Miguel Isusquiza Yarrantuk du haren jabetza. Finka horren gaineko afekzioa 5 m²-ko behin betiko okupazioak eta lurzattia ixteko afekzioak osatzen zuten. 2018ko irailaren 28an, afekzio horri dagokion okupazio akta sinatu zen.

2015eko abenduaren 24an, “A A-2602 eta A-4624 errepideak, Artziniegan (Araba) zehar igarotzen diren zatietan, egokitu eta urbanizatzeko eraikitze proiektuaren” obren zuinketa akta sinatu zen. Obrak 2016an eta 2017. urtearen zati batean egin ziren, eta 2017ko apirilaren 12an sinatu zen harrera akta.

Jabari Publiko Hidraulikoaren Erregelamenduaren 70. eta 78. artikuluetan aurreikusitako baimenaren ondorioetarako egindako izapideen barruan, 2017ko martxoaren 2an, URA Uraren Euskal Agentziak idazkia bidali zion Arabako Foru Aldundiari, non eskatzen zitzaion administrazio honi Artziniega ibaiaren gaineko zubian uholde arriskua nabarmen murriztea dakarten jarduketa hidraulikoen proposamena, “A-2602 eta A-4624 errepideak, Artziniegan (Araba) zehar igarotzen diren zatietan, egokitu eta urbanizatzeko eraikitze proiektuaren” obrak baimentzeko.

Errekerimendu horri erantzuteko, Arabako Foru Aldundiak dokumentu hau prestatu zuen: “Artziniega ibaiak Arabako Artziniegako udalerraren parean duen uholde arriskuari buruzko azterketa. Arteko Gure ikastetxe publikora eta kirol eremura sartzeko zubiaren obren ondorioen ebaluazioa, eta hobekuntza hidrauliko gehigarrien eragina”. Dokumentu horretan, Artziniega

ibaiaren egoera hidraulikoa aztertzeaz gain hirigunea eta eskola eta kirol gunea lotzen dituen zubiaren bide segurtasuna hobetzeko obrak egin ondoren, hobekuntza hidrauliko batzuk proposatzen dira zubiaren inguruan, ur xafla murrizteko aukera ematen dutenak, eta horrek benetako uholde arriskua gehiago murrizten du. Dokumentu horretan jasotako hobekuntza hidraulikoak hauek dira: kentzea zubitik ibaian behera dagoen pasabidea eta zubitik ibaian gora kokatutako pilonen egitura.

2019ko abuztuaren 8ko sarrera erregistroarekin, Arabako Foru Aldundiak Kantauriko Konfederazio Hidrografikoaren presidentearen 2019/07/23ko ebazpena jaso zuen, "Artziniega ibaiaren gaineko zubiaren taula handitzeko eta A-2601 eta A-4624 errepedeak egokitu eta urbanizatzeko ibai horren bi ertzetan, Artziniegako udalerraren parean" obrak baimentzeko espedienteari dagokionez, zeinak baimentzen baititu "A-2602 eta A-4624 errepedeak, Artziniegan (Araba) zehar igarotzen diren zatietan, egokitu eta urbanizatzeko eraikitze proiektuaren" obrak. Baimen hori emateko, bete egin behar dira ebazpenean jasotako baldintza partikularrak, besteak beste, ibaiaren ibilguaren hobekuntza hidraulikoa gauzatzeko egin gabe dauden obrak egitea (kentzea hormigoizko oztopoak eta erdi eraikita dagoen pasabidea).

Ekainaren 23ko 305/2020 Foru Aginduaren bidez, kontratu txiki bidez onetsi ziren "Artziniega ibaiaren ibilguaren egokitzapen hidraulikoa Artziniegako herritik igarotzean" egiteko lanak, Kantauriko Konfederazio Hidrografikoaren errekerimendua betetzeko egin gabe dauden obrak barne hartzen dituztenak.

Hori dela eta, egin gabe dauden obrak egin behar zirenez, eta obra horiek ez zeudenez "A-2602 eta A-4624 errepedeak, Artziniegan (Araba) zehar igarotzen diren zatietan, egokitu eta urbanizatzeko eraikitze proiektu" barruan Uraren Euskal Agentziak 2017ko martxoaren 2an egindako errekerimenduaren ondorio baitziren, Lege eta Administrazio Zerbitzuari eskatu zitzaion desjabetzea handitzeko beharrezko ziren kudeaketak egin zitzala 20. finka, José Miguel Isusquizarren jabetzakoa, eraitsi beharreko pasabidea balioztatuz eta jabeari dagokion kalte ordaina ordainduz, 20. finkaren jabeak elementu horren jabetza egiaztatu ondoren".

Eragindako ondasunak jendaurrean jartzeko izapidea bete du, eta ez da alegaziorik aurkeztu.

Nahitaezko Desjabetzearen Legearen 15. artikulua eta hori garatzen duen arautegiaren 15. artikulua okupazioa handitzea eta hedatzea aurreikusten dute, eta okupatu beharreko ondasunen artean sartu daitezke aurreikus daitezkeen kasuan kasuko obra handitzeetarako edo helburuetarako ezinbestekoak direnak, desjabetzea dakarren helburu, obra edo zerbitzuari loturik geratzen direla iritziz. Gainera, esan beharra dago ezen, Nahitaezko Desjabetzearen Legeak 52. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik Eusko Jaurlaritzak eskatutako premiaz okupatu behar hori proiektuen handitzei ere aplikatu behar zaienez, bidezko dela eragindako ondasun eta eskubideen desjabetzea handitzeko izapideei ekitea presako prozeduraren bidez.

Azterturik Finantza eta Aurrekontu Zuzendaritzak aurrekontu kreditu dagoela adierazteko idatzitako eta Desjabetze Atalak egindako txostenak, Bide Azpiegituren eta Mugikortasun Saileko diputatua naizen aldetik dagozkidan ahalmenak erabiliz, honako hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Handitzea "A-2602 eta A-4624 errepedeak, Artziniegan (Araba) zehar igarotzen diren zatietan, egokitu eta urbanizatzeko eraikitze proiektua" eragindako ondasun eta eskubideen zerrenda, eranskinaren arabera.

Bigarrena. Adieraztea handitzeak eragindako ondasuna okupatu eta eskuratu beharra dagoela, desjabetze ondorioetarako.

Hirugarrena. 7.482,34 euro esleitzea, Arabako Foru Aldundiaren 2020ko ekitaldiko aurrekontuko "Desjabetzeak" 50106.5300.6000002 partidaren kontura (zorpekin erreferentzia: 105-3515/000.20.1.20), eragindako ondasun eta eskubideen balio justua dela-eta ordaindu beharreko kopuruei aurre egiteko.

Laugarrena. Finantza eta Aurrekontu Zuzendaritzak ordain dezala eragindako finkei dagokien balio justuaren kopurua. Zenbateko hori Desjabetze Atalaren buruak balio justua ordaintzeko proposamen txostena aurkeztu eta gero ordainduko da. Ordainketa hori gorago aipatutako lerro eta zorpekin erreferentziaren kontura egingo da, legeak ezarritako epeetan.”

Horren berri ematen da interesdunak jakinaren gainean jartzeko eta dagozkion ondorioak izan ditzan, eta jakinarazten da egintza honek administrazio bideari amaiera ematen diola, eta haren aurka administrazioarekiko auzi errekurtsioa jarri ahal izango dela Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko administrazioarekiko auzien salan, argitaratu edo, hala badagokio, jakinarazi eta hurrengo egunetik kontatzen hasita bi hilabeteko epean.

Hala ere, nahi izanez gero, lehenago berraztertzeko errekurtsioa aurkeztu ahal izango zaio egintza hau agindu duen erakunde berari. Horretarako, hilabete izango da aurkatutako egintza argitaratu edo, hala badagokio, jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera. Hala eginez gero, ezingo da aurkeztu administrazioarekiko auzi errekurtsorik, harik eta aurkeztutako berraztertzeko errekurtsioaz ebazpen espresa eman edo ustezko ezespina gertatu arte (Urriaren 1eko 39/2015 Legearen, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenaren, 123. eta 124. artikulua).

Halaber, dei egiten zaie honi erantsitako agirian ageri diren titularrei, Artziniegako Udaletxeko lokaletan ager daitezen, bertan jasotako egunear eta orduan, finkak okupatu ahal izateko, okupazioaren aurreko gordailua eta azkar okupatzeagatik kalte-ordainaren kopuruak aurretik eskeiniz.


Kontzeptu horien zenbatekoa jaso nahi izanez gero, zeina behin betiko prezio justuaren kontura den, ondoko hauek aurkeztu beharko dira: eskubidea egiaztatzen duten tituluak, nortasun agiri nazionala eta ahalorde askietsia, legezko ordezkariak agertzen badira akten ekitaldira.

Ez badira onartu nahi eskainitako zenbatekoak edo ezin bada modu frogagarrian egiaztatu desjabetutako ondasunaren titulartasuna edo zein nortasunekin agertzen den, diru kopuru horiek Arabako Foru Aldundiko gordailu kutxan kontsignatuko dira, Nahitaezko Desjabetzapenari buruzko Legearen Arautegiak 58-1. artikuluan jasotakoarekin bat etorritik.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko urriaren 19a

Bide Azpiegituren zuzendaria
CARLOS IBARLUCEA MARTÍNEZ

Bide Azpiegituren eta
Mugikortasunaren Saila
Departamento de Infraestructuras
Viarias y Movilidad



A-2602 ETA A-4624 ERREPIDEAK ARABAKO ARTZINIEGATIK (ARABA) IGAROTZEAN EGOKITU ETA URBANIZATZEKO ERAKITZE PROIEKTUA
PROYECTO DE CONSTRUCCIÓN DE ACONDICIONAMIENTO Y URBANIZACIÓN DE LAS CARRETERAS A-2602 Y A-4624 A SU PASO POR LA LOCALIDAD DE ARTZINIEGA (ÁLAVA)

FINKAREN ZK.	TITULARREN IZENA NOMBRE DEL TITULAR	KATASTROKO DATUAK POLIGONOA LURZATIA		UDALERRIA	ERAGINDAKO ONDASUNA	Esp./Expte. 2015/11-B	EGUNA	ORDUA
		DATOS CATASTRALES POLIGONO PARCELA	TÉRMINO MUNICIPAL					
20/100	J. MIGUEL ISUSQUIZA YARRITU	8	30	ARTZINIEGA	BIEN AFECTADO Hormigoizko pasabide erdiraikia / Pasarela semiconstruida de hormigón		DÍA 13/11/20	HORA 10:00